

## **1998ko EKAINAren 5eko BILKURA BEREZIA**

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeita hamazortziko ekainaren bostean, arratsaldeko zazpit'erdia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ima Zubeldia Luloaga, Juan Manuel Iburguren Etxeberria, Marian Olano Zabala; Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz Zinegotziek ez dira bilerara agertu, nahiz eta jakinean egon, eta ez dute inolako arrazoirik eman; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Bilkura Berezia bildu dira, gai hau tratatu delarik:

## **INAXI ZEBERIOREN ERAHILKETA DELA ETA**

### **HERRI BATASUNAREN MOZIOA**

Bart Gernikan buruturiko operazioan, gure herritarra den INAXI ZEBERIO abertzalea hil du Ertzaintzak.

Beste hainbat alditan gertatu den bezala, ekidin zitekeen heriotza baten aurrean aurkitzen ari gara, eta hau ez gertatu izanak estrategia polizial hutsa defendatzen dutenak dira errudun zuzenak.

Aspaldidanik esana du Euskal Herriak, gaurkoa bezalako gertaerek ez dutela herri honentzako konponbide demokratikoa eta nazio eraikuntza laguntzen. Guztiz alderantzizkoa baizik. Beraz abertzale eta demokrata garen guztiok gaurko operazioa salatu beharrean aurkitzen gara, zein gorputz polizialek egin duen begira zai egon gabe

Gure barruan dugun mina handia den arren, Herri Batasunatik argi dugu, Euskal Herriari oinarrizko eskubideak errespetatu, eta herriari hitza ematean dagoela irtenbidea. Horren alde tinko borrokan jarraituko dugu.

Azkenik, adiskide, abertzale zintzo eta herritar eredugarri izan dugun INAXI ZEBERIORi omenaldirik xume eta hunkigarriena egin nahi diogu, herriaren alde bizitza eta bizia eman duelako.

Hau guztiaren aurrean, HERRI BATASUNako udal taldeak, honako puntu hauek aurkeztu nahi dizkio OSOKO UDAL BATZAR honi, bertan onartuak izan daitezten:

- 1.- Lizartzako Udal honek INAXIren familia eta lagunei bere doluminak adieraztea.
- 2.- INAXI, Lizartzako herriaren ALABA KUTTUN izendatzea.
- 3.- Udaletxeko balkoian ikurriña masta erdian eta krespoi beltzarekin jartzea. Herritarrei bakoitzak bere etxeko balkoian gauza bera egin dezan eskatzea.
- 4.- Lizartzako herriak INAXIri azken agurra eskeini diezaion, gorputza UDALETXEKO ARETO NAGUSIAN jartzea.
- 5.- Familiari gertaeraren ondorioz sorturiko gastu guztiak Udalak bere gain hartzea. Bestalde, operazio berdinean zaurituak eta atxilotuak gertatu diren pertsona guztien egoerari buruzko kezka publikoki adierazi, eta beraien askatasuna exijitzea.
- 6.- Erabaki honen berri, publikoki ematea.

Inaxi Zeberioaren erahilketa dela eta, Herri Batasunak aurkeztutako mozioa, aho batez onartua izan da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, arratsaldeko zortziak direnean.